



LANERAKO FITXA: **PIZZA ALLA BASURINI**

Jarduera honekin, zera landuko dugu

Elikagaiak botatzen ditugula.

Gure ekintzek ondorioak dituztela.

Lankidetzan aritzea eta gizalegez jokatzeari oso garrantzitsua dela.

GJH: **2.a** eta **12.a**, biek zerikusi handia daukatelako elikagaiak botatzearekin.

[Ezagutu garapen jasangarrirako helburuak \(GJH\)](#)

Iraupena

Saio bat.

Beharko dugun materiala

Pizza alla basurini ipuina edo bideoa.

Zikloak 1, 2, 3

Aurretiatzko oharrak

Benetako superheroiek gaitasun batzuk izan behar dituzte jendeari lagundu eta arazoak konpondu ahal izateko. Adi egon behar dute beti, inguruabarrak aztertzen, informazioa biltzen, historia ezagutzen...

Gaitasun horiek lantzeko moduetako bat istorio hauetan gertatzen dena aztertzea da. Besteei laguntzeko orduan, neska-mutilei baliagarria izango zaie bertan jasotako informazioa.

Ipuin honen bidez, gauza garrantzitsu batzuk ikasiko dituzte:

- Gure egunerokoan zenbat janari botatzen dugun konturatuko dira.
- Mundu global honetan, jokabide guztiak garrantzitsuak direla ikusiko dute.
- Sentsibilizatzen laguntzea zein garrantzitsua den jabetuko dira.

Garapena

Irakurri ipuina edo ikusi bideoa.

Arretaren proba (aukerakoa da, ikasleen adinaren arabera egiteko)

Ipuina irakurri edo bideoa ikusi ondoren, eta betiere ikasleen adinaren arabera, galdera batzuk egin ditzakezue, edukia ondo ulertu dutela ziurtatzeko.

Esaldi hauek egia edo gezurra diren esan beharko dute:

- Peporen urtebetetzea ari ziren ospatzen.
- Supermerkatuan oso janari gutxi zegoen.
- Pepok, supermerkatuan, janaria botatzen ikusi zituen bi langile.
- Urtebetetze-festan sobera gelditutako pizza etxera eramán zuten.
- Eskolan janari guzti-guztia jaten dute ikasleek.
- Pepok eta bere lagunek isilik geratzea eta aurkitu zutena inori ez kontatzea erabaki zuten.
- Kasu honetako supermaltzurra Xahubide kapitaina da.
- Benetako superheroiek ezagutarazi egiten dituzte injustiziak.

Hausnar dezagun

Hausnartu ipuinaren edukiaren inguruan, honelako galderak eginez:

- Gogoratzen al duzue istorio honetan noiz aritu den jendea janaria botatzen? Zuek ezagutzen al duzue horrelako kasurik?

Kontuan izanik janaria zakarrontzira botatzen dugun bakoitzean, platerean daukaguna bukatu gabe uzten dugun bakoitzean eta janariarekin jolasean aritzen garen bakoitzean Xahubide kapitainari laguntzen ari garela...

- Konturatzen al zarete askotan guk geuk laguntzen diogula Xahubide kapitainari? Pentsatu nork bere baitan, eta, nahi duenak, ozen erantzun dezala.
- Guk zer egin dezakegu Xahubide kapitainari ez laguntzeko?
- Zer egin zuten Pepok eta bere lagunek egoera horren aurrean?
- Ondo iruditzen al zaizue zerbait gaizki dagoenean jendeari ezagutaraztea? Inoiz egin al duzue horrelakorik?
- Zer egin dezakegu gai hau ezagutarazteko?

Ipuin honek irakaspen garrantzitsu batzuk jasotzen ditu. Aipatu zuen arreta piztu duten batzuk.

PIZZA ALLA BASURINI

Gaurko eguna izugarria izan da. Superheroi Ikertzaileen Taldekook (SIT) telebistan atera gara. Bueno, gu ez, gure bideoa baizik. Jakin nahi al duzue zer gertatu den? Kontatuko dizuet:

Duela aste batzuk hasi zen guztia, Ireneren urtebetetzea ospatu genuen asteburuan. Arratsalde bikaina izan zen. Aurrena, ginkana bat egin genuen auzoan, proba dibertigarri batzuk gaindituz, eta, afaltzeko orduan, pizzen txapelketa egin genuen! Pizza bat jatea baino gehiago gustatzen zaidanik ez dago! Bueno, bai: bi pizza jatea!

Hori baino lehen, goizean, supermerkatura joan ginen Ireneren aitarekin, afaria prestatzeko behar genituen gauzak erostera. Oso zerrenda luzea eraman genuen! Erosketa azkarrago egiteko, bakoitzak zerbeit hartzea erabaki genuen. Nik postrerako jogurtak hartu behar nituen. Jogurtak zeuden lekura iritsi nintzenean, hango hotzarekin izoztuta geratu nintzen ia!

Zaporeak aukeratzeko utzi zidaten, eta nik garbi neukan zein zapore aukeratu: txokolatea eta platanoa. Baina, begiratzen hasi nintzenean, ezin nuen sinetsi! Jogurt mota pila bat zeuden! Fruta-puskekin, fruta-puskarik gabe, azukrearekin, azukrerik gabe, gainarekin, gaingabetuak, light, bifidusarekin...

Izugarria iruditzen zitzaidan hainbeste jogurt mota egotea. Azkenean, jogurt batzuk aukeratu eta horiek hartu nituen.

Gero, urdaitegira joan nintzen, gainerakoekin elkartzeko eta pizzaren osagaiak aukeratzeko.

Eta han ere berdin! Urdaiazpikoa, urdaiazpiko egosia, mortadela, gazta mota pila bat... Ez genekien zer aukeratu. Pizza ezberdin asko egin genitzakeen!

Supermerkatuko apalak janariz gainezka ikusten ari nintzen bitartean, ezin nuen burutik kendu eskolan nola esaten diguten munduan milioika pertsona daudela gosez. Nola da posible? Hemen gizaki guztientzat dago-eta janaria! Burua horrelako gauzetan neukanez, aparkalekura iritsi ginenean ohartu nintzen poltsa bat dendan ahaztu nuela.

—A ze burua daukazu, Pepo! —esan zidaten—. Joan poltsaren bila. Guk, bitartean, autoa aterako dugu eta irteeran itxarongo dizugu.

Poltsa dendan zegoen. Eskerrak! Baina, supermerkatutik irtetean, galdu egin nintzen, eta zaborrontzi handi batzuk zeuden leku batera iritsi nintzen. Bi langile, plastikozko txanoak eta eskularruak jantzita, poltsa pila bat botatzen ari ziren zaborrontzi horietara. Iruditu zitzaidan janaria botatzen ari zirela; beraz, haiengana gerturatu nintzen:

—Kaixo. Zer egiten ari zarete?

—Kaixo, mutil. Iraungita dauden elikagaiak botatzen ari gara, eta itsusiak daudelako saldu ezin direnak. Tomate hauek, adibidez, hondatuta daude jada. Ikusten?

—Hondatuta daudela? Ba nire ustez oso itxura ona daukate.

—Bai, gure ustez ere bai, baina botatzeko agindu digute, eta guk bete egin behar ditugu aginduak.

Harrituta gelditu nintzen. Orduan, Ireneren aitaren autoaren bozina entzun nuen, eta korrika autora joan nintzen.

Afaria mundiala izan zen. Pizzak zoragarriak zeuden, baina ezin izan genituen denak jan, bete-beteta geunden-eta. Gainera, sabelean leku pixka bat utzi behar genuen postreak eta tarta jateko.

Nik pentsatzen nuen urtebetetze-festa amaitzean gure artean banatuko genituela sobera gelditutako pizzak, hurrengo egunean afaltzeko. Izan ere, nik egunero afalduko nuke pizza!

Baina mahaia jasotzen ari ginela, sukaldean sartu nintzen, eta gauza sinestezin bat ikusi nuen. Ia-ia erori egin zitzaizkidan eskuan neramatzan platerak. Sobera gelditutako pizza guztiak zakarrontzira botatzen ari zen Ireneren osaba!

—Zergatik bota dituzu pizza horiek? —galdetu nion harrituta.

—Ba hozten direnean gogortu egiten direlako eta ez direlako goxoak egoten.

Zeeeeer? Ez direla goxoak egoten? Nire janaririk gogokoena dira!

Hainbeste lan hartu genuen supermerkatura joaten eta afaria prestatzen, eta halako ilusioa egiten zidan hurrengo egunean ere pizza afaltzeak, eta azkenean zakarrontzian amaitzeko!

Orduan, goizekoa gogoratu nuen: Xahubide kapitainaren ekintza larri baten aurrean geunden. Garbi dago supermaltzurrekin adi ibili behar dela beti.

Nola lortu ote zuen Xahubide kapitainak Ireneren etxean sartzea?

Ez nenez nire lagunaren urtebetetze-festa hondatu nahi, ez nion inori ezer esan, baina, etxera itzultzean, informazioa biltzen hasi nintzen, astelehenean eskolan bilera bat egiteko.

—Zer gertatu da, Pepo? Zergatik esan diguzu bilerara etortzeko? —galdetu zuen Irenek.

—Ba larunbatean, zure urtebetetze-festan, supermaltzur baten aztarnak aurkitu nituelako: zehazki, Xahubide kapitainarenak.

Arbela erdian jarri nuen, eta gogorarazi nien nor zen supermaltzur hori eta zer egiten zuen: milioika pertsona egunero ezer jan gabe egotea da bere helburua, eta, horretarako, janari pila bat zakarrontzira botatzera bultzatzen du jendea. Gero, kontatu nien egun hartan bi aldiz ikusi nuela jendea janaria botatzen.

—Hori oso gaizki dago! —esan zuen Lukasek—. Zer egin dezakegu?

—Proba gehiago bildu behar ditugu. Auzoko leku guztiak kontrolatuko ditugu. Erabaki dut gutako bakoitza non jarri:

Irene, zu Pacoren tabernan egongo zara.

Lukas, zu hanburgesak saltzen dituzten dendan.

Ni supermerkatura itzuliko naiz.

Orain, eskolako jantokia elkarrekin begiratuko dugu.

Gure walkie-talkieak beharko ditugu, eta pazientzia asko, zeren supermaltzurra harrapatzea ez baita erraza izango.

Jantokian, harrigarria zen entzuten genuena: «Hau ez zait gustatzen», «Beteta nago; ezin dut gehiago». Janari pila bat botatzen zen zakarrontzira; ordura arte, ez ginen horretaz konturatu. Handik ere bazebilen Xahubide kapitaina!

Arratsaldean, gutako bakoitza berari egokitutako lekura joan zen, eta hantxe egon ginen, adi-adi begira.

Lehenengo alarma-deia Irenek egin zuen: Pacoren tabernan, jendeak janari pila bat uzten zuen plateran, eta zerbitzariak zakarrontzira botatzen zuten janari hori. Batzuetan, ogitartekoak oso-osorik botatzen zituzten!

—Kaixo, Pepo naiz. Bi langilek bi zaborrontzi bete dituzte janariz! Denetarik bota dute: fruta, haragia, jogurtak... Otarrainxkak ere bai! Nire amonari hainbeste gustatzen zaizkion otarrainxkak! Bazkari bereziak egiten ditugunean, amonak otarrainxkak jartzen ditu beti! Xahubide kapitaina gaiztakeriak egiten ari da supermerkatu honetan!

—Kaixo, ni Lukas naiz. Egoera guk uste baino larriagoa da. Hanburgesen dendan gauza bera gertatzen ari da. Jendeak gauza gehiegi eskatzen ditu, eta gero bete egiten da eta erdia bota egiten du.

—Pepo naiz berriro. Hamar minutu barru topagunean elkartuko gara. Gero arte.

Topagunean elkartu ginenean, kezkatuta geunden guztiok. Ez genekien zer egin egoera konpontzeko. Xahubide kapitaina nagusi zen gure auzoan, eta horrek oso ondorio larriak izan zitzakeen.

—Gauza bat bururatu zait supermaltzur horri aurre egiteko —esan zuen Irenek—. Benetako superheroiek entrenatuta daukagu ikusmena, eta berehala ikus dezakegu injustiziak non dauden, baina jende askok ez ditu injustiziak ikusten. Grabatu egin dezakegu gertatzen ari dena, eta grabatutakoa nire lehengusina Inesi eman diezaiokegu. Bera praktikak egiten ari da auzoko telebistan, eta zabalpena eman diezaioke grabaketari. Horrela, auzoko guztiek jakingo dute Xahubide kapitaina zertan dabilen.

Guztioi oso ideia ona iruditu zitzaigun. Egun batzuetan, jantokian, tabernan, supermerkatuan eta gure etxeetan janaria nola botatzen zen grabatzen aritu ginen, eta Inesi eman genion gure bideoa.

Gero, Inesek telebistan esan zuen SIT taldeak bideo bat bidali ziola, baina talde horretako kideak nor ginen esan gabe, noski. Badakizue superheroiek ez dutela jendearen aurrean haien lorpenei buruz harrokeriaz hitz egin behar.

Jendea harrিতuta geratu zen, Xahubide kapitaina deskubritu zutenak haur batzuk izan zirela jakitean. Xahubide kapitaina jende guztiaren aurrean aritu zen, eta heldu bat ere ez zen konturatu supermaltzurra han zebilela, supermerkatuan, tabernan eta abar.

Konturatu ginen zerbait konpontzeko lehen pausoa gaizki dagoena ikusaraztea dela, eta gure bideoarekin hori lortu genuen, hain zuzen ere. Benetako superheroiek ez daukagu indar atomikorik, baina ahalmena daukagu jendea injustizien aurrean mugiarazteko. Eta, gure bideoari esker, auzoko jende asko konturatu zen munduan milioika pertsona janaririk gabe dauden bitartean zakarrontzira janari pila bat botatzen aritzen garela gu hemen.

Supermaltzurak boteretsuak dira eta laguntzaile bila ibiltzen dira beti, konplizeak behar dituztelako haien gaiztakeriak egiteko. Lagunok: gogoan izan janaria zakarrontzira botatzen duzuen bakoitzean, Xahubide kapitainari laguntzen ari zaretela.